

# **EKONOMIA, LEHIAKORTASUN ETA BERRIKUNTZA ARLOKO AHOLKULARIA**

*Posted on 14/01/2026 by Naider*

## **DESKRIBAPEN OROKORRA**

Ekonomialaria edo ingeniaria, graduondoko prestakuntzarekin. Lantaldea indartzea bilatzen dugu, zientzia, teknologia eta berrikuntzaren estrategian, lehiakortasunean eta/edo azterketan espezializatutako pertsonekin, aholkularitza estrategikoko proiektuak eta hiri eta lurraldeetako ekonomia bultzatzeko eta eraldatzeko ekimenak garatzeko, bai eta enpresa-garapenerako eta ekintzailetzarako ekosistema zientifiko-teknologikoak garatzeko ere.

Gaitasun analitikoak eta datu-kudeaketakoak konbinatzen dituzten pertsonak bilatzen ditugu, estrategiak eta plangintza formulatzeko gaitasuna eta interesa dutenak.

## **EGINKIZUNAK**

Aholkularitza estrategikoko eta jarduketan kudeaketako zerbitzuak aktibatzea, kudeatzea eta gauzatzea, erakunde publikoekin (administrazioa eta agentzia publikoak), eragile zientifiko-teknologikoekin eta/edo enpresekin lankidetzan, bai toki-mailan, bai Estatuko eta Europako esparruan.

Osagarri gisa, NAIDEReko taldekideek dibulgazio-, prestakuntza- eta dinamizazio-jardueretan ere parte hartzen dute.

## **EZAGUTZA-EREMUAK**

Analisi ekonomikoa, enpresa-lehiakortasuna, lurralde-lehiakortasuna, berrikuntza-sistemak, ekintzailetza, eskualde-ekonomia. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistema, Hiri Ekonomia, Ekonomia Zirkularra, Trantsizio Ekologikoa, Trantsizio Energetikoa, Politika Publikoak.

## **PROIEKTUEN TIPOLOGIA**

- Tokiko eta eskualdeko aholkularitza estrategikoko proiektuak, eragile publiko eta pribatuekin lankidetzan.
- Hiriak eta lurraldeak dinamizatzeko azterketa eta plangintza, lehiakortasunari, berrikuntzari eta ekintzailetzari dagokienez.
- Sektoreen azterketa estrategikoa
- Enpresen lehia-posizionamendua
- Politika publikoen diseinua eta ebaluazioa.
- Lurralde-gobernantzako mekanismoak.
- Industriari laguntzeko planak/jarduerak

- Zientzia, teknologia eta berrikuntzako sistema bultzatzeko planak/jarduerak
- Ekintzailletza bultzatzeko planak/jarduerak
- Adimen artifizialaren aukerak kudeatzeko planak/jarduerak
- Hiri-inguruneen berroneratze- eta lehiakortasun-planak/-jarduerak
- Industria-guneen berroneratze- eta lehiakortasun-planak/-jarduerak
- Ekimen estrategikoak eta lankidetzak eragile zientifiko-teknologikoekin eta enpresekin trantsizio ekologikoaren, energetikoaren eta digitalaren esparruan.
- Eragin ekonomikoa eta sozioekonomikoa aztertzea.
- Analisi ekonomiko eta ekonometrikoa
- Jarraipen-adierazleen behatokiak eta datatoolak

## LOTURA-EREDUAK

- Freelance gisako zerbitzu profesionalen kontratua
- Lan-kontratazioa. NAIDERen staffera lan-kontratuarekin sartzea.

## LANTOKIA

Bilbo / Donostia

## BALDINTZAK

- **Ordainsaria:** Naider-en ordainsaria oso lehiakorra da eta hautagaiaren gaitasunean/esperientzian/konpromezuan oinarritzen da.
- **Malgutasuna:** Lanpostuak atxikipen-lantokian presentzialtasuna eskatzen du, nahiz eta presentzialtasun hori telelaneko formula puntualekin eta beste malgutasun-eskema batzuekin konbinatzen den, kontziliazioa ziurtatzeko.

## GUTXIENKO ESPERIENTZIA

Lanposturako eanguratsua den esperientzia profesionala behar da.

# HIZKUNTZAK

Gaitasuna **euskaraz, gaztelaniaz** edo **ingelesez**. Ahal dela, gaitasun osoa hiru hizkuntzetan aldi berean.

## ESKAERA-PROZESUA

Bidali zure hautagaitza **naider@naider.com** helbidera. Guk diskrezio eta erantzukizun osoz kudeatuko dugu. Bilatzen dugunerako profil interesgarri eta egokiena duten pertsonekin jarriko gara harremanetan.

